



# Ikastolako Lehendakaria, berri emaile



Kontseilu Errektoreak egindako azken bileraren berri doakizue. Os informo de la última reunión del Consejo Rector.

## KONTSEILU ERREKTOREA 2024-02-29

## CONSEJO RECTOR 2024-02-29

### 2024/2025 IKASTURTERAKO IKASLE IZEN-EMATEA 0-16 URTE. BALORAZIOA.

Zuzendariek 24-25 ikasturterako izen-emateak eta hauen gaineko hausnarketa partekatu dute. Jaiotze tasaren beherakada gero eta nabariagoa da hiru herrietan. Jaiotzen eta erroldatuen arteko aldeak azterketa zailtzen du, batez ere Eskoriatza eta Arrasaten. Halere, bi herri hauetan izen emate portzentaiak mantendu ditugu. Aretxabaletan berriz, datu hobekak izan dira portzentaietan. Beraz, balorazioa positiboa da.

Bestalde, fidelizazio datuak bai LHlean eta baita DBHlean ere onak izan dira. Datozen hilabeteetarako bi lan ildo nagusi nabarmendu dira; etorriberriei gure eskaintza ezagutaraztea alde batetik, eta bestetik, gure komunitatearekin Ikastolaren proiektua eta ikastola ereduaren berri eman dezaten eta preskriptore izateko lanketa egitea.

Datuen azterketa sakonagoa egingo da Zuzendaritza Kontseiluan eta hobekuntzak identifikatuko dira datorren ikasturteko egitasmoetan ekintzak txertatzeko.

### 2023-2024 IKASTURTEKO PLANA.

Helburen jarraipenaren txostena aurkeztu da. Hurrengo bilera egingo da balorazioa eta gaian sakonduko da. Laurane Zubiak iraila-abenduko aurrekontu ekonomikoaren jarraipenaren aurkezpena egin du. Abenduko itxieraren balorazioa positiboa da, halere, kontzertuen ofiziozko proposamenen egon diren aldaketek zein eragin izan duten aztertuko beharko da otsaileko itxieran.

### BAIMEN ORDAINDUEN ARAUDI ESPEZIFIKOAREN ALDAKETAK.

Baimen Ordainduen Araudi Espezifikorako aldaketa proposamenak aurkeztu dira. Kontseilu Errektorean aurkeztutako proposamenari errektorekideek egindako proposamenak jaso eta hurrengo bilera aurkeztuko da azken testua bere onepenerako.

### ESZEDENTZIA ESKAERA

Profesional batek egindako eszedentzia eskaera onartu da

### BESTERIK

#### - Kontseilu Soziala.

Lehendakariordeak Kontseilu Sozialeko bilera landutako

### INSCRIPCIÓN ALUMNADO CURSO 2024/2025 0-16 AÑOS. VALORACIÓN.

La dirección ha compartido la reflexión y los datos de inscripción para el curso 24-25. El descenso de la natalidad es cada vez más evidente en los tres pueblos. La diferencia entre nacimientos y empadronados complica el análisis, sobre todo en Eskoriatza y Arrasate. Sin embargo, en estas dos localidades hemos mantenido los porcentajes de inscripción. En Aretxabaleta, en cambio, este año, los datos son mejores en porcentaje. Por lo tanto, la valoración es positiva.

Por otro lado, los datos de fidelización han sido buenos tanto en el EPI como en la ESO. Para los próximos meses se han puesto de relieve dos grandes líneas de trabajo: por un lado, dar a conocer nuestra oferta a los/as recién llegados/as y, por otro, trabajar con nuestra comunidad para que den a conocer el proyecto y el modelo de ikastola y para que sean prescriptores.

Se realizará un análisis más exhaustivo de los datos en el Consejo de Dirección y se identificarán mejoras para incorporar acciones a los planes de gestión del próximo curso.

### PLAN DEL CURSO 2023-2024.

Se presenta informe de seguimiento de objetivos. En la próxima reunión se realizará la valoración y se profundizará en el tema.

Laurane Zubia presenta el seguimiento del presupuesto económico de septiembre-diciembre. La valoración del cierre de diciembre es positiva, sin embargo, al cierre de febrero habrá que analizar el impacto de los cambios en la propuesta de oficio de los conciertos.

### MODIFICACIONES DE LA NORMATIVA ESPECÍFICA DE PERMISOS RETRIBUIDOS.

Se presentan las propuestas de modificación al Reglamento Específico de Permisos Retribuidos. El texto final se presentará para su aprobación en la reunión de marzo adecuándose con las propuestas de los/as rectores-as a la propuesta presentada en el Consejo Rector.

### SOLICITUD DE EXCEDENCIA.

Se acepta la solicitud de excedencia realizada por un profesional.

### OTROS

#### - Consejo Social.

La Vicepresidenta hace un descargo de los temas tratados en la reunión del Consejo Social: preacuerdo del convenio entre la

ondorengo gaien deskargua egin du: Ikastolen Elkartearen eta LABen hitzarmenaren aurreakordioa, lanaldi murriztua daukaten profesionalen urteko egutegi/ordutegia antolatzeko irizpideak eta Bazara Kontseiluko ordezkariaren izendapena, hain zuzen.

**MONDRAGON.**

Ezagutza Dibisioaren lehenengo bilera martxoak 15ean izango dela aipatu da.

**Ikastolen Elkarte.**

Ekainaren 22an egingo da Ikastolen 7. Batzarra. Batzar horretan ikastolak gure etorkizuneko ildoak erabakiko ditugu. Horretarako "Nondik gatoz", "Non gaude" eta "Nora goaz" txostenak eskura ditugu. Horien gainean ekarpenak jasotzeko prozesua erabaki da. Lehenengo bilera irekia martxoaren 7an izango da. Deialdia Ikastolako guraso, profesional eta kolaboratzaileei bidali zaie.

2024an Azpeitian ospatuko den Kilometroak jaiaren inguruko informazioa eman da.

Federación de Ikastolas y LAB, criterios para la organización del calendario/horario anual de los-as profesionales con reducción de jornada y nombramiento de la representante para el "BAZARA Kontseilua".

**MONDRAGON.**

Se menciona que la primera reunión de la División de Conocimiento será el 15 de marzo.

**Ikastolen Elkarte.**

La 7ª Asamblea de las ikastolas se celebrará el 22 de junio. Las ikastolas decidiremos nuestras líneas de futuro. Para ello disponemos de los informes "De dónde venimos", "Dónde estamos" y "Adónde vamos". Se acuerda el proceso de recogida de aportaciones a las mismas. La primera reunión abierta será el 7 de marzo. La convocatoria ha sido enviada a las familias, profesionales y colaboradores-as de la Ikastola.

Se ha informado sobre la fiesta del Kilometroak que se celebrará en Azpeitia en 2024.

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

**MARTXOA: data nagusiak**

- 2024/03/07 7.Batzarrerako prestaketa
- 2024/03/19 7.Batzarrerako ekarpenen lanketa
- 2024/03/13 Kontseilu Soziala
- 2024/03/21 Kontseilu Errektorea